

## TXEMA MERCADO EB-IUKO ZERRENDA BURUA

### “Hauteskunde hauek ez dute legitimitaterik izango eta egoerari aurre egiteko indarrak bildu behar ditugu”

■ Ezker Batuak uste du “gizarteari, etorkizunari eta integrazioari begira dauden proposamenak” egin behar direla ■ Udal erabakietan herritarren parte hartzea bultzatzea proposatzen du Txema Mercadok.

TXEMA Mercado EB-Iuko zerrendaburuak uste du hauteskundeak oso egoera politiko txarrean egingo direla, mehatxu eta ilegalizazioak harrapatuta. Bere iritziz, hauteskundeek ez dute legitimitaterik izango herriko zati handi bat kanpora utzi dutelako. EB-IUk proposatzen du den artean “Ezker euskaldun alternatiboaren indarra eraikitzea, batetik egoera horri aurre egiteko, eta bestetik herriko gestioa ezkerretik egiteko. Mercadok ez du Jaurlaritzako tripartitua ikusten Hernanin.

#### ■ Zein dira EB-Iuren programaren ardatzak?

Beno, ezer baino lehen, esan beharra daukagu hauteskunde hauek oso egoera politiko txarrean datozela. Orain arte gehiengoa izan den sektorea kanpora utzi dute, eta beraz hauteskundeek ez dute legitimitaterik izango. Horri erantsi behar diogu PP eta PSE-EEko zinegotziak mehatxatuta daudela. Zentzu horretan, gu bat gatz Hitzorduak kolektiboak atera zuen manifestuarekin eta geure egiten dugu *Proiektu guztiak, Idea guztiak, Pertsona guztiak* lema.

Egoera horren aurrean indarrak bildu behar ditugu, zubiak eraiki elkarriketaren bidez, eta ezkerreko alternatiba osatu.

#### ■ Zein dira alternatiba horren oinarriak?

Gure oinarri eta helburuetako batzuk dira guztiontzako giza eskubideak defendatzea, herritarren parte hartzea, osasuna eta ingurunea babes-



Txema Mercado IU-EBko zerrendaburua.

tea, etxebizitza eskubidea garrantizatzea eta enpleoa sortzen duten politika sozial eta aurrerakoa bultzatzea.

Jendearen parte hartzean proposatzen duguna da gizarte eta auzo elkarteei *onura publikoko* izaera ematea eta udal aurrekontuetan lekua izatea, udal aurrekontuak era kolektiboan egiteko, benetan sozialak eta parte hartzaileak izateko.

#### ■ Etxebizitzari dagokionez?

EB-IU etxebizitza eskubidea garrantizatzen saiatuko da. Babestutako etxebizitzaren espekulazio eta iruzurra kontrolatuko ditugu eta alkilerreko etxeei lehentasuna eman,

beti ere, Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin elkarlanean eta Protekzioko etxeak bultzatuta.

Bestalde, industria etxe ingurutik urrutiratzea proposatuko dugu. Exijituko dugu Refractarios eta trenbidearen alde horretan dauden Floridako enpresak beste leku batera aldatzeko.

#### ■ Ingurune eta Osasun Publikorako Saila proposatzen duzue?

Bai. Guretzat oso garrantzitsua da Agenda 21 plana aurrera eramateko neurriak eta konpromisoak hartzea, eta hor herritarren parte hartzea garrantizatzea. Horretaz gain,

#### TXEMA MERCADO

Txema Mercado orain dela 51 urte jaiotzen eta Donostiarra da izatez. Francoren garaian hasi zuen aktibitate politikoa, eta azken urteotan zenbait ONG eta gizarte mugimenduetan ibili da lanean: SOS Balkanes, mugimendu ekologikotik eta abar. Gaur egun Hernaniko ikastola batean dabil maisu.

Txema Mercadok bere buruagatik esaten du “Beti erdiko bidea bilatzen duena” dela eta horretarako aurkeztu dela hauteskunde hauetara. Mercado lehenengo aldiz aurkeztuko da Hernaniko Udaletxerako.

San Markoseko inzineradora proiektuaren kontra borrokatuko dugu, beste herri batzuekin elkar hartu eta alternatibak eskainita.

#### ■ Zer egingo duzue politika sozialean?

Gai horretan zenbait inizatiba bultzatuko ditugu: langileen eskubideak defenditzea eta Arrisku Labolaren Prebentziorako neurriak betetzen ez dituzten enpresak eta ETak kontratatu ez, bazterketari aurre egin, Eguneko zentroa bultzatu, Emakume Saila sortu eta tratatu txarrak jasotzen dituztenak era aktiboak defenditu, gazteek zuzenduko duten Gaztetxea sortu eta abar. □

#### EB-IUREN PROGRAMA (LABURTUTA)

**GIZA ESKUBIDEAK DEFENDITU**  
Defendituko ditugu pertsona guztien segurtasuna, elkartzeko askatasuna eta adierazpen askatasuna.

#### HIRITARREN PARTE HARTZEA

Gizarte eta auzo taldeak indartu eta Udal aurrekontuak era kolektiboan egiteko bideak jarri, benetan sozialak eta parte hartzaileak izateko. Erreferendumak bultzatuko ditu.

#### OSASUNA ETA INGURUNEA

Agenda 21 plana aurrera eramatea. Ingurune eta Osasun Publikorako Saila eta Kontseilua sortzea bultzatuko dugu. San Markoseko inzineradoraren kontra borrokatu eta ‘Y’ proiektuari aurre egin.

#### TRANSPORTE PUBLIKOA

Eskualdeko garraio publikoa berantolatu eta sarbide erraza jarri ospitaleetara, poligonoetara, Amara eta Lasarte Eusko Trenen geltokietara, eta Donostian egingo den geltoki *intermodalera*. Herri barruko autobus zerbitzua indartu.

#### ETXEBIZITZA

Etxebizitza eskubidea garrantizatu, Protekzioko etxeen espekulazioa eta iruzurra kontrolatuta, eta alkilerreko etxeei lehentasuna eman. Protekzioko etxeak bultzatu Jaurlaritzarekin batera.

#### LANA

Enplegua sortzen duen politika sozial aurrerakoa bultzatuko dugu, langileen eskubideak defendituta, eta Lan Arriskuen Prebentziorako legerik betetzen ez duen enpresak baztertuta.

#### KULTURA

Kultura sozial, materialista eta zientifikoa bultzatuko dugu. Sormen elementuak bultzatzea da helburua.

#### HEZKUNTZA

0-3 urte bitarteko zikloa herriko ikastetxeetan sartu, akordio zabal baten bidez.

#### HIZKUNTZA

Politika linguistiko integratzailea. Euskera bultzatzen lagundu eta erdaldunak diren adineko eta etorkinei euskera ulertzeko bideak eman.

Tel.: 943 551494 / 943 551912  
Fax: 943 551130



Kardaberaz 68  
Hernani 20120

Hernaniko kronika laguntzaile:



ORAUNE PROMOZIOAK




mikel armendariz  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak

Tel. 649 846 422  
HERNANI

ZOZKETA: 2 lagunentzako  
astebeteko bidaia

Tenerife Hegoaldea



YONE  
boutique

Kale Nagusia 63

Zure fideltasuna  
sartu nahi dugu

Hemen erosiz,  
Tenerifera joan  
zintezke

50 euroko  
erosketagatik  
zozketarako  
boleto bat



Zozketa: 2003ko Ekainak 28ko  
loterietan

## EA-EAJk dio kirola egiteko programa berri bat bultzatuko duela, osasunaren mesederako

■ Koalizioak dio 'Hernani Sasoian' izeneko programa bultzatuko duela, Kirol Orientaziorako Zerbitzua sortu eta kirol teknikari bat jendearentzat lanean jarri ahal izateko.

EA-EAJ koalizioak prentsa oharrean jakinarazi duenez, kandidatearen helburuetako bat kirol programa berri bat bultzatu eta indartzea da. Kirol programa horrek "kirola egitea ohitura bihurtu nahi du jendearen artean, Osasunaren Mundu mailako Erakundeak gomendatzen duen bezala".

Horretarako, EA-EAJk *Hernani Sasoian* programa jarri nahi du martxan, Diputazioarekin eta Buruntzaldeko beste herriekin elkarlanean. Programa horren barruan dioa Kirol Orientaziorako Zerbitzua sortzea, eta teknikari bat lanean jartzea. Horretaz gain, koalizioak baditu beste bi helburu

ere: batetik, Hernaniko inguru naturalean ibilbide batzuk sortzea, korrika, oinez eta bizikletan ibili ahal izateko; eta bestetik, kirola denbora pasa gisara ere praktikatu dila, bai enpresetatik bultzatuta eta baita herriko kirol taldeen kirol eskaintza haundituta ere. □


## 'Nere Borda' parkearen zati bat jendearentzat irekita dago, joan den larunbata ezkeroztik

■ Orain ireki duten zatia Latsunbeberriko errotondaren ondo-ondoan dagoena da.

■ Parkearen zatirik haundiena berritzen ari dira, baina, San Joanetarako irekiko dute.

*NERE Borda* parkearen zati bat larunbatean iriki zuten jendearentzat, egin beharreko berrikuntzak eta txukuntze lanak eginda. Gainerako parke zatia oraindik berritzen ari dira, baina, San Joanak baino lehenago bukatuta edukiko dute, Manuel Fraile Udaletxe-ko Hirigintza Saileko Buruak esan zuenez.

Larunbat goizean iriki zuten ofizialki Nere Borda parkeko zati hori, hain zuzen, Latsunbeberriko errotondaren ondoan gelditzen dena, eta Mertxe Etxeberría Alkateak eta Manuel Fraile Hirigintzako Buruak eman zituzten obrari buruzko azalpenak. Orain iriki duten parke zatiaz gain, bukatu gabe dagoena ere erakutsi zioten larunbatean inguratu zen



Udaleko arduradunak inguratutako jendeari azalpenak ematen.

jendeari. Udaleko arduradunek esan zuten, obra guztiaren haundi-aurkiak eginak daude, eta azken ikutuak ematea ba-

karrik falta zaio. Hori bi edo hiru astetako lana izango da, eta San Joanetarako bukatuta egongo da. □

### ■ ERRUGBIA

#### Infantilak Euskadiko Txapelkun

HERNANIKO Infantilen taldea Euskadiko Txapelkun gelditu da, asteburuan, Bizkaia eta Arabako aurrenekoen kontrako partiduak irabazi eta gero. Durangori 30-15 irabazi zioten eta Gaztediri 35-15. □

### ■ PELOTA - HERRI ARTEKOA

#### Hernanik 3 partiduak irabazi dizkio Anoetari

GIPUZKOAKO Herri Arteko Txapelketan, Hernanik 3 partiduak irabazi dizkio Anoetari, joanekoan. Gorrotxategik eta Aizpitartek 22-10 irabazi zuten; Arrieta eta Otegik 22-3; eta Erroizenea eta Mendizabalek 22-9. □

KIROLA			ASTEBURUKO PARTIDUAK		
FUTBOLA	Taldeak	Emaitza	PELOTA	Taldeak	Emaitza
Goren.	HernaniZestoa	3-2	Ehko, Gipuzkoako eta Udaberri Txapelketak		
Emakum.	Vasconia-Hernani	3-1	Palgóm	Bemep-Boubeta / Uzkiz-Ruiz	30-25
1. E. E. rej.	Hernani-M. arño	1-3	Trinkete	M. artinez-M. anzisior / Kuku	29-30
Gaz. O. h.	Hernani-T. hba	5-0	Jub. Trin.	M. kelZumtuza / A. durtza	20-35
Kad. O. h.	Antiguoko-Hernani	1-2	Erremontea - Galarreta		
Kad. 2.	Lehengokoak-Hernani	7-0	1) Odrizola - Dn / M. atch IV - Agnezabala		24-35
Haur O. h.	A. izjoni-Hernani	1-3	2) A. luna I - Hante / Zeberri II - J. Etxeberria		37-40
PELOTA			3) B. torrij-A. izpuri / E. lizalde - A. Lekunberri		
Hernaniko Lauterdiko Txapelketa			4) Zeberri I - Utko / M. atch III - Unetabizka II		
Kadetea	G. rajal / O. jiel	11-22	ERRUGBIA		
Kadetea	A. pao. lza / A. negi	22-08	Sen. Kopa	Hernani-A. tetik S. Sebastian	56-07
Herri Arteko Txapelketa			Inf. Eusk.	Hernani-D. urango	30-15
Kadetea	G. onobategi-A. izpitarte / Anoeta	22-10	Inf. Eusk.	Hernani-G. aztedi	35-15
Jubenila	A. rieta - O. tegi / Anoeta	22-03			
Seniorra	E. mo. zenea - M. endizabal / Anoeta	22-09			

## Bihar, asteartea, Kronika izango da

HAUTESKUNDEAK direla-eta, gaur hasi eta ostirala bitartean hauteskundeetara aurkeztu diren Alderdi Buruei entrebistak egingo dizkie Hernaniko Kronikak. Horregatik, bihar, asteartea, Kronika izango da ohizko lekuetan. □

### ■ HITZ BITAN

#### ✓ EGUNKARIAREN ALDEKO BATZORDEA

**Egunkari berriaren aldeko diru biltzea.** Egunkariaren Aldeko Batzordea proiektu berriaren aldeko diru biltzea egiten ari da Hernanin. Oraingoan lehenengo kanpaina bukatu dute, eta inon baino bazkide berri gehiago lortu dituzte. Datorren astetik aurrera, akzioak saltzen hasiko dira, eta horretarako Hernaniko etxe atarrietan informazio txartelak jarriko dituzte. Batzordetik Kronikari jakin arazi diotenez, orain arte bonoak erosi dituenari akziotan kapitalizatuko zaio dirua eta oraindik akziorik ez daukanari aukera emango zaio 300 euroko eta 50 euroko akzioak erosteko. Hernanin 186 laguntzaile berri lortu dira eta guztira 338 daude.

#### ✓ KONTZERTUA BITERIN

**'Tenoclock' taldearen kontzertua.** Hernaniko Musika Eskolak eta Udal Hezkuntza Batzordeak kontzertua antolatu du datorren asteazkenerako. Kontzertua *Tenoclock* taldeak emango du eta 10 abesti joko dituzte. *Tenoclock* taldeak "inprobisazio Kombo" bat sortu nahi du. Horretarako 8 lagun: Arza (pianoa), Luzuriaga (bajua), Muñoz (gitarra), Azkarate (bateria, Masach (trontpetu), Izarra (saxoa), Dominguez (trontpetu) eta Goialde (narratzailea). 11:00etan, Biterin.

#### ✓ MENDIRIZ MENDI

**Izpegitik Auzara mendi buelta, igandean.** Mendiriz Mendik irteera antolatu du Baztango Auzara mendira (1.305 metro). Datorren igandean, maiatzak 25, goizeko 08:00etan aterako dira Atsegindegitik eta Izpegi mendateraino autobusean joango dira. Izpegitik Auzara igo eta Aldudera jeitsiko dira. Han izango dute autobusa zai. Izena emateko Mendiriz Mendira zuzendu beharko dute interesatuek, datorren ostirala baino lehenago. Prezioak: 8 euro bazkideek eta 11 euro bazkide ez direnek.

#### ✓ BERDINTASUN SAILA

**Hitzaldia asteazkenean.** Berdintasun Sailak antolatuta, hitzaldia izango da asteazkenean, *Emakumea eta Hauteskondeak* gaiaren bueltan. Hizlariak Alderdi politikoetako kideak izango dira, 19:30etan Biteri kultur etxean.

#### ✓ SASKIBALOA

**Astigarragako Mundarro taldeak ez du lortu maila Autonomikora igotzea.** Astigarragako saskibaloia taldeak maila Autonomikora igotzeko fasea jokatu du asteburu honetan. Larunbatean jokatu zuten finalerdia La Salle taldearen kontra eta galdu egin zuen, partidu oso gogorra jokatu. Igandean jokatu zen finala La Salle eta Larramendi taldeen artean, eta La Salle irabazi zuen. Azken faseko partidu guztiak Astigarragako kiroldegian jokatu dira larunbat eta igandean. Arduradunak gustora, jendearen erantzunarekin. □

### ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK				
<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Taxiak: 943 550093</li> <li>▶ Udaltzaingoa: 943 333288</li> <li>▶ DYA: 943 464622</li> <li>▶ Anbulatorioa: 943 006666</li> <li>▶ Jokalari anonimoak: 943 331103</li> </ul>	<table border="1"> <thead> <tr> <th>ASTELEHENA</th> <th>ASTEARTEA</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td> <ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793</li> <li>▶ Gaez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 ☎ 943 361774</li> </ul> </td> <td> <ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933</li> <li>▶ Gaez: Gil Lasarte. Nagusia 24 ☎ 943 361529</li> </ul> </td> </tr> </tbody> </table>	ASTELEHENA	ASTEARTEA	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793</li> <li>▶ Gaez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 ☎ 943 361774</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933</li> <li>▶ Gaez: Gil Lasarte. Nagusia 24 ☎ 943 361529</li> </ul>
ASTELEHENA	ASTEARTEA				
<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793</li> <li>▶ Gaez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 ☎ 943 361774</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933</li> <li>▶ Gaez: Gil Lasarte. Nagusia 24 ☎ 943 361529</li> </ul>				

### LAN ESKAINTZA

TOPAGUNEAK EKIPO INFORMATIKOETAKO TEKNIKARIA behar du Lan Baldintzak: - Urtebeteko kontratu luzagarria egun osoko dedikazioaz. - Lan lekua, Andoainen. Informazio gehiagorako: **Dobera Euskara Elkartera** (Larramendi 6) edo deitu **943 33 27 99** ra.

### IRAGARKI MERKEAK

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko nituzke, astean 3 egunetan, goiz eta arratsaldean. Interesatuek deitu: **699 14 92 85**

Tabernako sukaldean lan egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuek deitu goizez telefono honetara: **943 55 67 06**